

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, onartzen dituen xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak

Arabako Lurralde Historikoan foru arauen proiektuak egiteko prozedura taxutzen joan da hainbat arauen bitartez. Hasierakoak honako hauek izan ziren: abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua, Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren ekonomia eta aurrekontu araubidearena; Zergei buruzko Foru Arau Orokorra, eta Arabako Batzar Nagusien Erregelamendua.

Gero, Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 31ko 48/2003 Foru Dekretuaren bitartez, izaera orokorreko bere xedapenak egiteko jarraitu beharreko barne prozedura ezarri zuen, bai eta araugintzako teknikari buruzko zenbait gidalerro, xedapen horien egitura eta forma zehaztekoak, eta alderdi ortografikoen gaineko beste gomendio osagarri batzuk ere.

Horiek horrela, kontuan izanik EAEko administrazio publikoen betebeharrak dela, beren arauak egiterakoan eta aplikatzerakoan, modu aktiboan aintzat hartzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua, EAEko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, aurreikusi zuen generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egitea xedapen arauemaileak sortzeko prozesuan.

Beste alde batetik, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, gobernuen eta administrazio publikoen araugintza ahala erabiltzean aplikatu behar diren zenbait printzipio eta teknika ezarri ditu, oinarritzko arau gisa. Horrela erantsi dira arautze egokiaren printzipioak bete beharra, araugintzaren planifikazioa eta ebaluazioa, eta, halaber, herritarren parte hartze zabalagoa arauak egiteko prozeduran.

Azkenik, foru egoitzan jada, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, foru arauen aurreproiektuen eraginaren aurretiazko ebaluazioa jasotzeaz gain, berak indarra hartzen zuenetik sei hilabete igaro baino lehen araugintzako teknikari buruzko gidalerroak presta zitezela agindu zuen, eta gidalerro horietan arauen argitasuna eta kalitatea hobetzeko ildo eta irizpide homogeneoak ezar zitezela.

Horregatik guztiatik, nahiz eta gaur egun indarrean dauden arau guztien bidez erantzuna eman nahi izan zitzaizen arauen kalitatearen eta sinplifikazioaren, informazioaren eta herritarren laguntzaren arloetan sortutako beharrezanek, komeni da, egungo egoera sozial eta juridikoa dela eta, arauen barreiadurari amaiera emanez, izaera orokorreko xedapenak izapidetzeko arauak moldatzea, berdintasunari, gardentasunari eta informazio publikoaren eskuragarritasunari buruzko xedapenetara egokituz, bai eta Estatuko araudian oinarritzotzat ezarritako printzipio eta tekniketara ere.

Adierazi beharra dago foru dekretu hau izapidetzean aintzat hartu dela otsailaren 18ko 4/2005 Legean, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoan, xedatutakoa.

EAEren Autonomia Estatutuak 37.3.a) artikuluan foru organoei eskumen eskusiboa ematen die beren erakundeentzako antolaketa, araubidea eta funtzionamendua gobernatzeko. Bada, eskumen hori erabiliz, Arabako Foru Aldundian sustatzen diren araugintzako ekimenen izapidetzea bizkortu nahian, beharrezko eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak bete daitezela behar diren bermeak errespetatuz, foru dekretu hau onartzen da bere lau eranskinekin eta xedapen iragankor,

xedapen indargabetzaile eta azken xedapen banarekin. Azken xedapen horrek zehazten du foru dekretu hau ALHAOn argitaratutakoan jarriko dela indarrean.

Ordenamendu juridiko oinarrri diren printzipioak betetze aldera, I. eranskinean prozedura egoki bat garatu da izaera orokorreko xedapenak egiteko; kalitate tekniko handiko arauak onartzea ahalbidetuko duten bermeak eskaintzeaz gainera, prozedura horrek behartzen du urtero araugintza plana onartzera, oinarrizko araudian ezarrita dauden arautze egokiaren printzipioak betetzera eta herritarrek araugintzan duten parte hartzea hobetzera.

Ondoren, proiektatzen diren xedapenen beharrari eta egokitasunari buruzko azterlan eta txostenen, memoria ekonomikoaren eta genero eraginari buruzko txostenaren edukia zehazteko —dokumentu horiek erantsi behar baitzaizkie Arabako Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenen proiektuei eta foru arauen aurreproiektuei—, II. eta III. eranskinek gida metodologikoak dakartzate hurrenez hurren arauaren eraginari buruzko txostena egiteko eta generoaren araberako eraginari buruzko txostena egiteko.

Arauen kalitatea bermatzearen, azkenik, IV. eranskinean araugintzako teknikari buruzko gidalerro batzuk jaso dira, manu bakoitzari formulaziorik egokiena ematerakoan elkarren osagarri diren bi alderdi landuz: barne egitura, eta manua azaltzeko erabiltzen den hizkuntza.

Horrenbestez, diputatu nagusiak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura onartzea. Prozedura hori foru dekretu honen I. eranskinean dago.

Bigarrena. Arauaren eraginari buruzko txostena egiteko eta generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena egiteko gida bana onartzea, bai eta araugintzako teknikari buruzko gidalerroak ere, izaera orokorreko xedapenak egiten direnean erabil daitezzen. Hurrenez hurren, xedapen honen II., III. eta IV. eranskinetan daude.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Trantsizio aldia

Foru dekretu hau indarrean jarri aurretik izaera orokorreko xedapenak egiteko hasi diren prozesuak, amaitzen diren arte, lehengo araudiari jarraituz izapidetuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten dira uztailaren 31ko Diputatuen Kontseiluaren 48/2003 Foru Dekretua, zeinaren bidez onartzen baitira izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura eta xedapen horiek eta foru arauen proiektuak egiteko eta kontrolatzeko araugintzako teknika-jarraibideak, Diputatu Nagusiaren Idazkaritza Teknikoko zuzendariaren otsailaren 28ko 302/2002 Ebazpena, zeinaren bidez onartzen baitira Arabako Foru Aldundiaren xedapen eta ebazpenak egiteko eta idazteko arauak eta gidalerroak, eta dekretu honetan xedatutakoaren kontrakoak diren xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea

Foru dekretu hau eta beraren eranskinak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiaren kabinetearen zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN

I. ERANSKINA

IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK EGITEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

1. Dekretu honen xedea da prozedura arautua ezartzea foru arauen aurreproiektuak eta horien pareko maila eta indarra duten beste xedapen arauemaile batzuenak egiteko, bai eta Arabako Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapen arauemaileen proiektuak egiteko ere.

2. Dagoeneko berariazko prozedura ezarrita dutenak prozedura horrexen arabera egingo dira, baina dekretu honetan ezarritakoa ere aplikatu ahal izango zaie osagarri gisa.

2. artikulua. Aplikazio eremua

1. Arabako Foru Aldundiko sailetan izaera orokorreko xedapenak egiteko sustatzen diren prozedurei aplikatuko zaie foru dekretu hau, baldin eta xedapen horiek, gaia edozein dutela ere, ordenamendu juridikoa berritzen duten arau juridikoak ezartzen badituzte, eta azkenean foru arau, foru dekretu arauemaile, foru dekretu edo foru agindu eran gauzatzen badira.

2. Ez dira halakotzat joko honako hauek: jakinak diren edo izan daitezkeen hartzaile batzuei eragiten dieten administrazio egintza generikoak, aplikazio bakarrean agortzen direnak, edo bide ematen dietenak beste exekuzio egintza batzuei, zeinen edukia alde aurretik erabat zehaztuta baitago haietan, nahiz eta izaera orokorreko xedapenak ematen dituzten organo berek emanak eta xedapen horien forma berekoak izan.

3. Kanpoan geratzen dira izaera orokorreko xedapenen aplikazioa errazteko ematen diren jarraibideak.

II. KAPITULUA

Arautze egokiaren printzipioak eta araugintzaren planifikazioa

Lehenengo atala

Arautze egokiaren printzipioak

3. artikulua. Arautze egokiaren printzipioak

1. Araugintzako ekimena eta erregelamendu ahala egikaritzean, Arabako Foru Aldundiak beharraren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioei loturik jardungo du.

2. Beharraren eta eraginkortasunaren printzipioei jarraituz, Arabako Foru Aldundiak betiere interes orokorreko arrazoen bidez justifikatu beharko ditu bere araugintzako ekimenak eta izaera orokorreko xedapenen proiektuak, identifikatu egin beharko ditu lortu nahi dituen helburuak, eta berak izan beharko du helburu horiek betetzeko bitartekorik egokiena.

3. Proportzionaltasun printzipioari jarraituz, proposatzen diren araugintzako ekimen guztietan argi erakutsi beharko da kasuan kasuko ekimena dela aukerarik egokiena eta ez dagoela beste neurririk proposatutakoek baino betebeharrak gutxiago ezarriko dituenik edota eskubideak gutxiago murriztuko dituenik.

4. Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araugintzako ekimenak Europar Batasunaren Zuzenbidearekin eta gainerako ordenamendu juridikoarekin bat etorri egikaritzeko dira, horrela sortu ahal izango baita arau esparru egonkorra, aurreikus daitekeena, integratua, argia eta ziurra, xedapen arauemaileen hartzaile diren pertsonak erraz ezagutu eta ulertzeko modukoa.

5. Arabako Foru Aldundiak, gardentasunaren printzipioa aplikatuta, indarra duten xedapen arauemaileetarako eta horiek egitean erabilitako dokumentuetarako irispide erraza, unibertsala eta eguneratua emango du, gardentasunari buruzko berariazko foru araudia betez.

6. Efizientiaren printzipioa aplikatuta, araugintzako ekimenetan saihestu egin beharko dira zama administratibo erantsiak edo premiagabekoak, eta, haien aplikazioan, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu beharko da.

Bigarren atala

Araugintzaren planifikazioa

4. artikulua. Urtero araugintza plana onartzea

1. Urtero, azken hiruhilekoan, Arabako Foru Aldundiak araugintza plana onartuko du eta aditzera emango du. Hurrengo urteko ekitaldian onartzeko proposatu nahi dituen foru araugintzako ekimenak eta orokorreko izaerakoak jasoko ditu plan horretan.

2. Organo eskudunak urteko araugintza planean ageri ez den araugintzako proposamenen bat aurkezten badu onartzeko, arau horren premia edo presa justifikatu beharko da izaera orokorreko xedapen hori egiteko prozedura abiarazten duen ebazpenean.

5. artikulua. Urteko araugintza planaren ardura eta jarraipena

Arabako Foru Aldundian gardentasunaren arloko eskumena duen zuzendaritzak kudeatu, zuzendu eta gainbegiratuko du urteko araugintza plana.

6. artikulua. Urteko araugintza planaren gardentasuna

Behin onartuta, urteko araugintza plana argitara emango da Arabako Foru Aldundiaren "Gobernu Irekia" atarian.

III. KAPITULUA

Prozedura

Lehenengo atala

Hasiera

7. artikulua. Organo eskuduna

1. Izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedurari hasiera emango dio kasuan kasuko xedapenaren gaiaren gaineko eskumena duen saileko titularrak. Baina Diputatuen Kontseiluak edo diputatu nagusiak abiaraziko du prozedura beste xedapen arauemaile batzuetan hala ezartzen denean edo bi sailek edo gehiagok daukatenean esleituta gaiaren gaineko eskumena.

2. Baldin eta, xedapena egiteko prozedura hasitakoan, beste sail batzuek parte hartu behar luketela irizten bazaio, xedapenak eragina izan dezakeelako haien eskumeneko gaietan, sail horiek ere prozeduran sartuko dira. Ordura arte egindako jarduketak beren horretan mantenduko dira, ahal den neurrian.

3. Xedapenak bi sail edo gehiago ukitzen dituen kasu horietan guztietan lan batzordeen sorrera sustatuko da, ukitutako sailen ordezkariak parte har dezaten helburuak zehazteko eta testu arauemailea idazteko lanetan.

8. artikulua. Prozedura hasteko ebazpena

Prozedura hasteko ebazpenean labur azalduko dira xedapenaren helburua eta hura onartzea justifikatzen duten interes orokorreko arrazoiak, eta xedapenak ordenamendu juridikoan ustez zer ondorio sortuko dituen adieraziko da; gai berari buruz indarra duten eta esplizituki edo inplizituki aldatuko diren arauak aipatuko dira. Halaber, proposatutako arauaren gaia eta edukia direla eta bidezkotzat jotzen diren izapideak eta txostenak aipatuko dira.

9. artikulua. Aurretizko kontsulta publikoaren izapidea

1. Xedapen arauemailearen aurreproiektua edo proiektua egin baino lehenago, sail eskudunak kontsulta publikoa egingo du, honako alderdi hauen gaineko iritzia eskatzeko herritarrei eta ordezkartasun handieneko erakundeei:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onarpenaren premia eta egokitasuna,
- c) xedapenaren helburuak, eta
- d) ordezeko konponbideak (araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak).

2. Aurretizko kontsulta bide telematikoetatik egingo da, Arabako Foru Aldundiaren web orriaren bitartez.

3. Kontsulta publiko horren epea gehenez hamabost egun naturalekoa izango da, hura Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratzen den egunetik hasita.

10. artikulua. Aurretizko kontsulta publikoaren izapidearen salbuespena

Izaera orokorreko xedapenak egiteko prozeduretan, honako kasu hauetan ez da egingo aurretizko kontsulta publikoaren izapidea, aurreko artikuluan aipatutakoa:

- a) Xedapenek aurrekontuei edo antolaketa buruzko arauak ezartzen dituztenean.
- b) Goragoko arau juridikoen egokitzapenak direnean.
- c) Behar bezala justifikatuta dauden interes orokorreko arrazoi larriak tarteko direnean.
- d) Zerbitzuen antolaketa eta prozedurako beste alderdi batzuk baino arautzen ez direnean, Arabako Foru Aldundiak goragoko ordenamendu juridikoa betearaztea beste eskumenik ez duen arloetan.
- e) Xedapenek jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez dutenean.
- f) Hartzaileei garrantziko betebeharririk ezartzen ez dietenean.
- g) Gai baten alderdi partzialak arautzen dituztenean (atal honetan sartuta daude araudi indardunen alderdi ez funtsezkoen aldaketak edo pertsonen lehendik dituzten eskubideei eragiten ez dieten unean uneko aldaketak).
- h) Foru Aldundiak erabakitzen duenean testu arauemaile bat presaz izapidetzea.
- i) Zergen arloan, xedapenaren helburu bakarra denean Arabako Lurralde Historikoaren legeria araubide erkideko lurraldean indarra duten arau substantibo eta formalei egokitzea.

Bigarren atala

Instrukzioa

11. artikulua. Egiteko arauak eta irizpideak

Prozedura abiarazi duen aginduaren edukiari erreparatuta idatziko dira aurreproiektu edo proiektuak, lortu nahi diren helburuei eta egindako kontsulten emaitzari ondoen egokitzen zaizkien arautze aukerak kontuan hartuta.

12. artikulua. Aurretizko onarpena eta instrukzio izapideak

1. Testu arauemaileen proposamenak idatzi ondoren, prozedura hasteko ebazpena eman duen organoaren aurretizko onarpena jaso beharko dute proposamenok, bidezkoak diren negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideei ekin baino lehen.

2. Langileen ordezkariekin negoziatu edo kontsultatuko dira lan baldintzei buruzko araugintzako proiektuak eta funtzio publikoaren arloko legeriak zehazten dituenak, kasuan kasuko legeriak ezartzen dituen esparru materialen arabera.

13. artikulua. Testu arauemaileak egiteko prozeduran herritarrek parte hartzea. Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea

1. Foru arauen aurreproiektuak eta izaera orokorreko xedapenen proiektuak, pertsonen eskubide eta interes legitimoak ukitzen badituzte, argitara emango dira Arabako Foru Aldundiaren web orrian, entzunaldiaren izapidea egiteko. Horrela, arauaren xedeak eragiten dien herritar eta erakundeek egokitzen jotzen dituzten ekarpen guztiak egin ahal izango dituzte.

2. Iritzia azaltzeko eskatu ahal izango zaie zuzenean, halaber, legez onartuta dauden erakunde edo elkarteei, xedapen arauemaileak eskubide edo interes legitimoak ukitzen dizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko badituzte eta beren helburuek zuzeneko zerikusia badute xedapenaren gaiarekin. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe erakunde horiek aurreko idatz zatian aipatutako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidean parte hartzeko duten eskubidea erabili ahal izatea.

3. Hamabost egun naturaleko epean egingo dira entzunaldia eta, kasua bada, jendaurreko informazioa. Hala ere, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik epea laburtu ahal izango da, zortzi egun naturalera, gehienez ere.

4. Araugintzako proiektuak eta aurreproiektuak entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egin beharretik salbuetsiko dira aurrekontuei buruzko arauenak direnean, edo beren funtsezko edukia, legearen aginduz, foru ordenamenduan sartu behar denean, eraginkorrak eta baliozkoak izateko Arabako Batzar Nagusiek baliozkotu behar dituztenean edo orokorreko arrazoi larriak tarteko direnean.

Izaera orokorreko xedapen antolatzaileen kasuan ere ez da egingo entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapiderik. Arau antolatzailetzat joko dira, betiere, xedatzen dituztenak Arabako Foru Aldundiaren eta foru sektore publikoko gainerako erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa, erakundeek beren burua antolatzeko duten ahalmenaren ondoriozko administrazio prozedurak, foru titulartasuneko zerbitzuen antolaketa edota zerbitzu horiek jasotzearekin eta ematearekin zerikusia duten prozedurazko alderdiak.

14. artikulua. Sailen memoriak eta txostenak

1. Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea amaitutakoan, araua sustatu duen saileko organo eskudunak memoria bat, arauaren eraginari buruzko txosten bat eta generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txosten bat egin beharko ditu.

2. Memorian jasorik utziko dira entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideen emaitzak, eta, halaber, parte hartzeko prozesu horien ondorioz testu arauemaileei gehitu ahal zaizkien ekarpenak jasoko dira, edota, ekarpenen bat baztertu bada, baztertu izanaren arrazoiak.

3. Arauaren eraginari buruzko txostenean argi eta labur azalduko dira honako hauek:

a) Proposamenaren egokitasuna eta komenigarritasuna.

b) Edukia eta azterketa juridikoa. Arau esparrua azalduko da, eta xedapena indarrean jartzen denean indargabetuko diren xedapen guztien zerrenda zehatza emango da.

c) Araugintzako proposamena nola egokitzen zaion eskumen banaketaren ordenari.

d) Aurrekontuen gaineko eragin ekonomikoa, zama administratiboen identifikazioa, eta, kasua bada, behar diren giza baliabideak. Arauak ekarriko duen kostuaren kalkulua, gastuen eta diru sarreren zenbatekoa eta foru erakundearen aurrekontuen gaineko eragina azaldu beharko dira.

4. Xedapen arauemaileak generoaren arabera izango duen eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostena erantsi beharko zaie foru arauen aurreproiektuei, foru dekretu arauemaileen proiektuei eta Diputatuen Kontseiluaren foru dekretuen proiektuei, egitura organiko eta funtzionala onartzen dutenei izan ezik. Txosten hori egiaztapen organoari igorri beharko zaio,

hau da, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuari, behar diren oharrak egin eta igor ditzan proiektua aldatzeko, behar izanez gero. Horrela bermatuko da xedapen arauemailea onartu eta gero hark genero eragin positiboa izatea.

Generoaren araberako eraginari buruzko txosten hori foru dekretu honen III. eranskinean azaltzen den moduan egingo da.

5. Aurreko zenbakietan aipatutako dokumentuak eman ondoren, eta, egoki bada, Aholku Batzordean txostena eman ondoren, testu arauemailea sustatu duen sailak ekonomia eta arau kontroleko txostena eskatuko dio Arabako Foru Aldundiaren egituraren arabera txosten hori emateko eskumena duen administrazio unitateari.

6. Gainera, foru arauen aurreproiektuak egitean, 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 68. eta 69. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, aurrekontuen gaineko eraginari buruzko txostena eman beharko du horretarako eskumena duen administrazio unitateak.

Araugintzako proposamen horiek aurrekontu zama handia dakarten kasuetan, finantzaketa proposamen egokia erantsi beharko zaie.

15. artikulua. Aholku Batzordearen txostena

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 30eko 40/1999 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, zenbait kasutan, izaera orokorreko xedapenaren proiektua organo eskudunari onartzeko aurkeztu aurretik, irizpena eskatu behar zaio Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeari. Horrelakoetan batzordeari irizpena eskatu zaio eta eskaerari erantsita igorriko zaizkio izaera orokorreko xedapenaren aurreproiektuaren testua, emandako memoria eta txostenak eta egindako kontsultak.

16. artikulua. Koordinazioa eta arauen kalitatea. Legezkotasun kontrola

1. Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak edo foru diputatuek onartu beharrekoak diren izaera orokorreko xedapenak egiteko prozesuak koordinatzeko eta arauen kalitatea gainbegiratzeko eginkizunak Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren eskumenekoak izango dira.

2. Hori dela eta, izaera orokorreko xedapenaren aurreproiektua edo proiektua onartu aurretik, goian aipatutako zerbitzuko organo eskudunak haren legezkotasuna kontrolatuko du, eta honako hauek aztertu beharko ditu, gutxienez:

- a) Proposatutako arauaren maila.
- b) Foru Aldundiak xedapena onartzeko eta haren legezkotasuna kontrolatzeko duen eskumena.
- c) Agiriaren kalitate teknikoa, dekretu honekin batera onartutako gidalerroen arabera.
- d) Nola egokitzen zaion ekimena urteko araugintza planari.
- e) Nola bete diren arautze egokiaren printzipioak eta hori nola islatu den zioen azalpenean.
- f) Beste arau batzuen berariazko indargabetzea, beharrezkoa denean.

3. Kontrola ezezkoa bada edo edukian garrantzizko aldaketak egiteko eskatzen badu, testua sail sustatzaileari itzuliko zaio, txosteneko oharrak eta iradokizunak aztertu eta bidezko deritzona erabaki dezan. Kontrolak eragozpenik planteatzen ez badu, testua Diputatuen Kontseiluari aurkeztuko zaio, aztertu eta onar dezan.

17. artikulua. Izaera orokorreko xedapenak presaz izapidetzea

1. Foru arauen aurreproiektuak, foru dekretu arauemaileen aurreproiektuak edo foru dekretuen proiektuak egiteko eta onartzeko prozedurak presaz izapidetu daitezela erabaki ahal izango

du Diputatuen Kontseiluak, sail sustatzailearen proposamenez, honako inguruabarretakoren bat gertatzen bada:

a) Araua indarrean jarri beharra badago Europar Batasunaren Zuzenbidearen transposizio-rako ezarritako epean edo Estatuaren oinarritzko arauetan nahiz Eusko Legebiltzarraren legeetan ezarritako epean.

b) Arauaren helburua bada zergen arloko Estatuko legeak egokitu eta foru ordenamendu juridikoan sartzea, eta, betiere, horrek ez badakar berekin funtsezko aldaketak egitea araudi horien edukian.

c) Aurreikusitako ezin izan diren eta xedapena presaz onartzera behartzen duten beste inguruabar berezi batzuk gertatzen direnean.

2. Presako izapidetze horretan ez da egin beharko aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea.

Hirugarren atala

Onarpena

18. artikulua. Foru arauen eta foru dekretu arauemaileen proiektuak onartzea

Foru arauen eta foru dekretu arauemaileen aurreproiektuak izapidetzen amaitu eta gero, Diputatuen Kontseiluak behin betiko testua aztertuko du, erantsitako dokumentazioarekin batera, eta onartu egingo du. Ondoren Arabako Batzar Nagusietara igorriko du, eztabaidatu ondoren onartu, baliozkotu edo indargabetu egin dadin, kasuan kasukoa.

19. artikulua. Izaera orokorreko xedapenak onartzea

1. Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretuen proiektuak izapidetzen amaitu eta gero, organo horri aurkeztuko zaizkio behin betiko onar ditzan eta ondoren ALHAOn argitaratu daitezela.

2. Izaera orokorreko gainerako xedapen arauemaileak foru diputatu eskudunek onartuko dituzte, eta horiek ere ALHAOn argitaratu beharko dira.

IV. KAPITULUA

Urteko araugintza planaren ebaluazioa

20. artikulua. Urteko araugintza plana nola bete den ebaluatzea

1. Ekitaldi bakoitzeko ekainaren 30a baino lehen, aurreko urteko araugintza plana noraino bete den azaltzen duen urteko txostena onartuko du Diputatuen Kontseiluak, gardentasunaren arloan eskumena duen Foru Aldundiko sailaren proposamenez.

Gardentasunaren arloan eskumena duen unitateari ebaluazio horretarako laguntza emango diote ukitutako sailerako zerbitzuek; helburu horretarako eskatzen zaizkien informazio guztiak eman beharko dituzte.

2. Txosten hori aditzera emango da Arabako Foru Aldundiaren gardentasun atariaren bitartez.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Presa fiskaleko dekretu arauemaileak.

Presa fiskaleko dekretu arauemaileen proiektuei, hau da, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, II. tituluko IV. kapituluan aipatzen dituen horiei, ez zaie inoiz aplikatuko foru dekretu honetan xedatutakoa, salbu arauaren eraginari buruzko txostenak eta legezketasunari buruzko txostenak, hurrenez hurren foru dekretu honen 14.3 artikuluan eta 16. artikuluetan aipatutakoak.

Bigarrena. Berariazko salbuespenak.

a) Honako hauek aurretiazko kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak egin beharretik salbuetsiko dira:

Lehengoa. Dirulaguntza, beka eta bestelako laguntza ekonomikoetarako programen oinarriak eta deialdiak onartzen dituzten izaera orokorreko xedapenak, baldin eta urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena, indarrean jarri baino lehenagoko ekitaldietan helburu bererako onartutako oinarri eta deialdien eduki berbera badute edo ez badiote funtsezko aldaketarik egiten.

Bigarrena. Edozein gairi buruzko izaera orokorreko xedapenak, ordeztzen dituzten edo indaraldia amaitu zaien eta xede bera izan duten beste xedapen batzuen eduki berbera badute edo ez badiote funtsezko aldaketarik egiten, eta, betiere, lehengo xedapen horiek beteta badituzte foru dekretu honetan araututako aurretiazko kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak.

Hirugarrena. Funtzio publikoan sartzeko edo lanpostuak betetzeko hautapen prozesuak eta oro har Arabako Foru Aldundiko langile funtzionarioei, lan kontratudunei edo izendapen politiko langileei dagokien guztia onartzen duten izaera orokorreko xedapenak, bai eta enplegu publikoa eta giza baliabideak antolatzeke planei buruzkoak ere. Horiek guztiak beren araudi berariazkoa izango dute.

Laugarrena. Honako zerbitzu eta prestazio hauei buruzko izaera orokorreko xedapenak: abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, ezarritako zerbitzu eta prestazioak; abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, ezarritakoak; laguntzako prestazio ekonomikoak; eta Estatuaren edo autonomia erkidegoaren titulartasuneko beste laguntza prestazio batzuk.

b) Foru dekretu honetan ezarritako prozedura bete beharretik salbuetsiko dira betiere:

Lehenengoa. Izaera orokorreko xedapenak, xedetzat badute akatsak zuzentzea, indarra duten beste xedapen arauemaile batzuetan ezarritako aurrekontu esleipenak aldatu edo prezio, tarifa, kostu eta balioak eguneratzea, edo eskaera, autolikidazio eta horrelakoen eredu formalizatuak dakartzaten eranskinak aldatzea, betiere aldaketa horiek ez badiete eragiten pertsona hartzaileen eskubideei. Izaera orokorreko xedapen horiek onartzeko nahikoa izango da salbuespena justifikatzen duen txostena ematea eta, hala behar denean, dekretu honen 14 artikulua 4 eta 5 zenbakiek aipatutako txostenak ematea.

Bigarrena. Foru aginduak egiteko prozedurak, foru aginduaren xedea zerga ereduren bat onartzea denean, edo zergak aplikatzeko erabili behar diren balio, koefiziente, portzentaje eta gainerako elementu kuantitatiboak aldi behin eguneratzea.

Hirugarrena. Sariak eta ohorezko aipamenak ematea arautzen duten izaera orokorreko xedapenak.

II. ERANSKINA

ARAUAREN ERAGINARI BURUZKOTXOSTENA EGITEKO ILDOAK

Arauaren eraginari buruzko txostena deritzon dokumentuan jasotzen eta bateratzen da foru arau baten aurreproiektuari edo izaera orokorreko xedapen baten proiektuari erantsitako informazioa, haren egokitasuna eta beharrezana justifikatzen duena; eta, halaber, hura onartzeak errealitatearen hainbat esparrutan izango duen eraginaren estimazioa egiten da.

ARAUAREN ERAGINARI BURUZKOTXOSTENA EGITEKO ILDOAK, FORU ARAUEN AURREPROIEKTUETARAKO ETA FORU DEKRETU ARAUEMAILEETARAKO

1. ARAUGINTZAKO PROPOSAMENAREN EGOKITASUNA ETA KOMENIGARRITASUNA.

0.1. Arrazoiaren azalpena.

Ekimena sorrarazi duen izatezko egoera deskribatu, proposamena justifikatzen duten arrazoiak azaldu, eta ekin nahi zaion egoera deskribatu behar da, honako hauek jasoz, gutxienez ere:

- Proposamenaren arrazoiak. Arauzko arrazoiak, arrazoi instituzionalak edo judizialak izan daitezke, edo litekeena da aurreko arrazoi horietatik bat ere ez egotea, errealitatean detektatu den egoera edo arazoren bat baino.

Nolanahi ere komeni da ohartaraztea ez dela arrazoitzat hartu behar gai jakin bati buruzko araurik ez egotea, baizik eta, kasua bada, araurik ez egotearen ondorioak, horiexek izango baitira benetako arazoa eta araugintzako proposamenaren arazoia.

- Egoerak eragiten dien eta xedapenaren hartzaille diren kolektibo eta pertsonen identifikazioa. Identifikatu egin beharko dira, baldin eta xedapenak hauetakoren bati eragiten badio:

- biztanleria osoari.
- biztanleriako sektore jakin bati
- pertsona jakin batzuei
- beste administrazio batzuei

- Egoerak zein interes publiko ukitzen duen, eta nola.

- Zergatik den proposamena gauzatzeko une egokia.

1.2. Helburuak.

Proposatutako xedapena aplikatuz zer emaitza lortu nahi diren azaldu behar da. Helburuek honako ezaugarri hauek izan behar dituzte, oro har:

a) Zehatzak eta mugatuak izatea, interpretazio baterako baino gehiagotarako biderik ematen ez dutenak.

b) Neurgarriak; ahal den guztietan termino kuantitatiboetan adieraziko dira, edo, ezin bada adierazle kuantitatiborik erabili, ahalik eta zehatzen deskribatuko dira.

c) Errealistak; komeni da baloratzea ea dauden baldintzak egonda proposatutako neurriak egokienak ote diren helburuak lortzeko, eta baldintzarik onenak identifikatu behar dira.

d) Denboran mugatuak.

e) Beste jarduketara publiko batzuen helburuekin lotura dutenak, ahal den neurrian.

f) Lehentasunaren arabera ordenatuak, halako moduan non helburu bat baino gehiago badaude argi geratuko baita zein den helburu nagusia, hau da, zuzenen lotutakoa deskribatutako arazo edo egoerarekin eta interes publikoekin.

1.3. Ordezko aukerak

Ase nahi diren beharriaz beste mekanismo batzuen bitartez erantzun ahal ote zaien aztertutako behar da.

Ordezko aukera horiek honela aurkeztuko dira:

- lehenetsunaren araberrako hurrenkeran, alegia, egoerari aurre egiteko egokitasunaren araberrako hurrenkeran;
- edukiaren deskribapen labur batekin, eta helburuak zenbateraino beteko liratekeen azalduta;
- onurak eta eragozpenak adierazita.

Ez dago ordezko aukera guzti-guztiak azaldu beharrik, nahikoa da aukera nagusien azalpen laburra egitea. Ordezko aukerarik ez badago, horrela jasoko da txostenean. Ordezko aukeraren bat badago baina bideraezina bada, horrela jaso beharko da txostenean, azalpen labur batekin.

1.4. Lehen eranskinean ezarrita dauden arautze egokiaren printzipioak betetzea.

Azaldu behar da nola betetzen dituen araugintzako proposamenak arautze egokiaren printzipioak, I. eranskineko 3. artikuluan ezarritakoak.

Bereziki, beharriaren eta efizientziaren printzipioei erreparatuko zaie, oinarritzat hartu den interes orokorreko arazoia justifikatuko da, eta proposamena haiek bermatzeko tresnarik egokiena dela frogatuko da. Proposamena proportzionaltasun printzipioari nola egokitzen zaion ere azaldu beharko da. Ase nahi den beharriaz erantzuteko ezinbestekoak diren arauak jaso behar dira ekimenean, eskubideak gutxiago murrizten dituen edo hartzaileei betebeharrak gutxiago ezartzen dizkion beste neurririk ez dagoela egiaztatatu ondoren.

2. EDUKIA, AZTERKETA JURIDIKOA ETA IZAPIDEEN DESKRIBAPENA.

2.1. Edukia.

Atal honetan araugintzako proposamenaren edukiaren deskribapena jasoko da. Argi azalduko dira honako hauek:

- Proposamenaren egitura, beraren atalak eta artikuluen kopurua.
- Proposamenaren atal guztien eta bertan jasotako neurri guztien laburpenak.
- Proposamenean jasotako elementu berriak.

2.2. Azterketa juridikoa.

- Proposatutako testu arauemailearen oinarri juridikoa:

Proposatutako xedapeneraren oinarri juridikoa osatzen duten xedapen eta artikulua aipatu behar dira.

- Eskumena:

Aztertutako behar da nola egokitzen zaion xedapen proposamena eskumeneren banaketa ordenari, zehaztu behar da zein edo zeintzuk eskumen titulutan oinarritzen den xedapena, eta adierazi behar da zer eskumen mota erabiliko den: eskumen propioa, eskuordetua, estatutuko, transferitua etab.

- Izaera orokorreko xedapenerako proposatzen den mailaren justifikazioa.
- Xedapenak indarreko ordenamenduan izango duen eragina:

a) Gaia jada araututa dagoen ala ez adierazi behar da. Baiezkoan, gaia arautzen duten xedapenen maila, zenbakia eta data aipatu behar dira, eta araudi hori nolakoa den adierazi:

- Osatugabea
- Zaharkitua
- Ez eraginkorra
- Bestelako helburuak ditu, eta zergatik.

b) Goragoko arauetikiko lotura: araugintzako proposamena beste xedapen baten ondorio den kasuetan, adierazi behar da zein den xedapen horren maila eta araugintzako proiektuak zer erlazio duen xedapen horrekin.

c) Lehenagoko xedapenen bat indargabetzen edo aldatzen duen ala ez adieraziko da, eta, baiezkoan, zein edo zeintzuk.

- Zuzenbide konparatua:

Adierazi behar da ea badagoen gai berari buruzko araudirik Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoan, beste autonomia erkidego batzuetan, Europar Batasunean eta abarretan. Zehatz adieraziko dira arauen maila, data eta jatorria.

- Arau garapenaren beharra badago, horren eremua eta norainokoa.

- Indarrean jartzeari buruzko zehaztapenak, eta trantsizioko araubidea, halakorik aurreikusten bada.

- Gainerako ordenamendu juridikoarekiko koherentzia: xedapen bat beste batzuekin lotuta egon daiteke, halako moduan non, desberdinak izan arren, elkarren osagarriak izan baitaitezke sektore bat arautzeko.

2.3. Izapideen deskribapena.

Proposamena egiteko prozeduran bete behar diren izapideen deskribapena emango da atal honetan.

Izapide horien artean honako hauek nabarmendu daitezke:

- Txostenak eta irizpenak. Nork eman dituen adierazi behar da eta edukiaren laburpena egin behar da; txostena edo irizpena aldekoa izanez gero, laburpen horretan nahikoa izango da aldekoa dela esatea.

- Herritarren eta interesak ordezkatzeko dituzten erakundeen parte hartzea; alegia, jasorik utzi behar da entzunaldiaren izapidea.

2. EKONOMIAREN ETA AURREKONTUEN GAINEKO ERAGINA.

2.1. Eragin ekonomiko orokorra.

Analisi horren bitartez eragin eta ondorio ekonomikoak aztertu behar dira. Honelakoak erabil daitezke haien identifikaziorako, besteak beste:

- Produktu eta zerbitzuen prezioen gaineko eragina: ea tarifa edo prezio berriren bat ezartzen den, prezioen indize bati erreferentzia eginez zenbatekoak eguneratzen diren, etab.

- Langileen eta enpresen produktibitatearen gaineko eraginak.

- Enpleguaren gaineko eraginak, alegia, ea lanpostuen sorrera erraztu edo sustatuko den edo, aldiz, zuzenean nahiz zeharka enplegu galera eragingo den, kostu edo murrizketa berrien bitartez.

- Berrikuntzaren gaineko eraginak: ea erraztu edo sustatu egingo diren ikerketa edota garapen jarduerak, teknologia berrien erabilera, ekintzailtzarako ahalmena etab.

- Kontsumitzaileen gaineko eraginak.

- ETE-en gaineko eraginak. Enpresen tamainaren arabera desberdinak izango diren eraginak identifikatu behar dira, bereziki.

2.2. Merkatuko lehiaren gaineko eraginak.

Aztertu behar da ea testu arauemailea gai ote den merkatuko lehia distortsionatuko duen elementuren bat eranstea. Bereziki, honako hauek aztertu behar dira:

- operadore berriak merkaturatzeko balizko murrizketak.

- operadoreei lehiatzeko askatasuna edo pizgarriak mugatzen dizkieten murrizketak.

2.3. Zama administratiboen azterketa.

Zama administratibotzat jotzen dira enpresek eta herritarrek xedapenaren ondoriozko betebeharrak betetzeko egin beharko dituzten lan administratibo guztiak.

Xedapenak ekarriko dituen zama administratiboak edota lehengo araudiaren aldean kendu edo murriztuko diren zama administratiboak identifikatu beharko dira eta haien munta ekonomikoa zenbatetsi beharko da.

Definizio horren barruan daude honako jarduera hauek, besteak beste:

- a) Baimenak eta lizentziak berritzea.
- b) Datuak jakinaraztea eta dokumentuak aurkeztea.
- c) Dokumentuak gordetzea.
- d) Erregistroetako inskripzioak, bajak eta aldaketak.
- e) Liburuak kudeatzea, dokumentu, kontu, aitorpen, eskuliburu, produktu eta planak egitea.
- f) Auditoriak, ikuskapenak eta kontrolak.
- g) Abal, berme edo beste funts batzuk egiaztatzea.
- h) Hirugarrenei informazioa ematea edo hirugarrenen baimenak lortzea.

2.4. Erakundearen eta giza baliabideen gaineko eragina.

Aztertu egin behar da ea araugintzako proposamenak berekin ote dakarren honelako ondoriorik:

- Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko egitura organikoetan, lanpostu zerrendetan edo langileria antolatzeko antzeko tresnetan edozein organo, unitate edo lanpostu sortu, aldatu edo kentzea.

- langile gastuak (horien mota eta zenbatekoa adierazi behar dira).

- baliabideen gehikuntza (horien mota eta zenbatekoa adierazi behar dira).

2.5. Aurrekontuen gaineko eragina.

Aurrekontuen gaineko eraginaren bitartez neurtzen da araugintzako proiektuak ustez gastu eta diru sarrera publikoetan izango duen eragina.

Adierazi beharko da ea xedapen berriak aurrekontuko diru sarrera edo kostu berririk ekarriko duen, eta, baiezkoan, zenbatekoa eta zer motatakoa izango den.

3. BESTE ERAGIN BATZUK.

Atal honetan modu arrazoituan azalduko dira errealitatearen beste alderdi batzuk, nola edo hala xedapenak eragingo dienak eta goian definituetakoak ez direnak; hau da, organo proposatzailearen iritziz garrantzitsua izan daitekeen beste edozein alderdi. Arreta berezia jarriko zaie gizartearen eta ingurumenaren gaineko eraginei eta desberdintasun funtzionala duten pertsonentzako irisgarritasun unibertsalaren, bereizkeriarik ezaren eta aukera berdintasunaren arloko eraginari.

ARAUAREN ERAGINARI BURUZKOTXOSTEN LABURTUA EGITEKO ILDOAK, DIPUTATUEN KONTSEILUAREN, DIPUTATU NAGUSIAREN ETA FORU DIPUTATUEN IZAERA OROKORREKO ERREGELAMENDUZKO XEDAPEN ARAUEMAILEEN PROIEKTUETARAKO ETA PRESA FISKALEKO DEKRETU ARAUEMAILEEN PROIEKTUETARAKO

Presak fiskaleko dekretu arauemaileen kasuan eta xedapen orokorren kasuan, azkenean foru agindu edo dekretu eran eman behar badira, arauaren eraginari buruzko txosten laburtua erantsiko da, gutxienez atal hauek izango dituenak:

a) EGOKITASUNA ETA ARRAZOITEKNIKOAK.

Proposatutako araua bidezkoa eta komenigarria dela frogatzen duten elementuak aztertu behar dira, eta, halaber, arauaren beharra justifikatzeko beharrezkotzat jotzen diren azterlan edo txostenak aztertu behar dira, bai eta sartu nahi diren berrikuntzak ere.

Gainera, azaldu beharko da nola egokitzen zaien araugintzako proposamena arautze egokiaren printzipioei, "Arauaren eraginari buruzko txostena egiteko ildoak, foru arauen aurreproiektuetarako" ataleko 1.4 puntuan jasotako eran.

b) EDUKIA, AZTERKETA JURIDIKOA ETA IZAPIDEEN DESKRIBAPENA.

Araugintzako proiektua aztertu behar da ikuspegi juridikotik, "Arauaren eraginari buruzko txostena egiteko ildoak, foru arauen aurreproiektuetarako" ataleko 2. puntuan ezarritakoarekin bat etorritz.

c) AURREKONTUEN GAINEKO ERAGIN EKONOMIKOA.

Zama administratiboak eta, halakorik bada, baliabide materialen eta giza baliabideen kostuak identifikatu beharko dira. Arauak ekarriko duen kostuaren kalkulua, gastuen eta diru sarriren zenbatekoa eta foru erakundearen aurrekontuen gaineko eragina azaldu beharko dira.

III. ERANSKINA**GENERO ERAGINARI BURUZKOTXOSTENA EGITEKO ILDOAK****1. TXOSTENAREN XEDEA ETA OINARRIAK**

1.1. Izaera orokorreko xedapenaren izenburua.

Araugintzako proiektuaren izenburu osoa jarri behar da.

1.2. Txostena egin beharra justifikatzen duen lege ingurunea.

Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoaren, zein artikuluk justifikatzen duten txostena egitea adierazi behar da.

1.3. Organo emailea, txostenaren xedea eta organo hartzailea.

Xedapena egiten parte hartu duen eta proiektuaren genero eragina ebaluatzeko txostena ematen duen organoa zein den adierazi behar da.

Adierazi behar da, halaber, txosten hori Berdintasun Zerbitzuari igortzen zaiola, egiaztapen organoari, hain zuzen, hark behar diren oharra egin eta igor ditzan, aldaketak egiteko, behar izanez gero, eta, azken batean, xedapena onartu eta gero genero eragin positiboa sortuko dela bermatzeko.

2. XEDAPENAREN GENERO EGOKITASUNA IDENTIFIKATZEA.

Hau identifikatu beharko da:

- Ebaluatutako xedapenaren azken hartzaileak emakumeak eta gizonak izango diren eta xedapenak baliabideen eskuragarritasunean edota genero rolaren aldaketan eragina izango duen neurrian, xedapena EGOKIA DA

- Ebaluatutako xedapenaren azken hartzaileak emakumeak eta gizonak izango diren, baina xedapenak baliabideen eskuragarritasunean edota genero rolaren aldaketan eraginik izango ez duen neurrian, xedapena EZ DA EGOKIA

Xedapena ez dela egokia adierazten bada, ezegokitasunaren arrazoiak justifikatu ondoren, amaitutzat emango da txostena; baina alde zuzenetik xedapenaren hizkuntza berrikusi beharko da.

3. XEDAPENAREN GENERO ERAGINAREN BALORAZIOA.

3.1. Arau aginduak identifikatzea.

3.2. Genero desberdintasunak eta desorekak identifikatzea.

Xedapenaren esku hartzearen ingurunean lehendik egon litezkeen genero desberdintasunak argi identifikatzeko balioko duen informazioa bildu behar da, arreta berezia jarriz aukera berdintasunerako politiken helburuekin lotuta daudenei.

Horretarako, kontuan hartuko dira, bidezkoa bada, honako adierazle mota hauek:

- Adierazle kuantitatiboak. Xedapen orokorraren helburuari eta edukiari dagokienez emakumeek eta gizonen duten egoera definitzeko estatistikak erabiliko dira, egoera horrekin zerkusia izan dezaketen emakumeen eta gizonen ezaugarriak deskribatuko dituztenak, xedapenaren aplikazio esparruan. Adibidez:

– Xedapenaren helburuak eta aplikazio eremuak eragiten dien emakumeen eta gizonen kopurua eta ehunekoa.

– Emakumeen eta gizonen egoeraren ezaugarri nagusiak, modu kuantitatiboan adierazita. Adibidez: adina, diru sarreraren maila, egoera zibila, kokapen geografikoa, zenbait kolektibotako kide izatea (adibidez, langabeak, ikasleak, genero indarkeriaren biktimak eta abar).

- Adierazle kualitatiboak. Osagarri gisa erabiliko dira, xedapenaren aplikazio eremuan eragina izan dezaketen genero estereotipoak eta rolak identifikatzeko. Adibidez, sinesmen, balio, ohitura edo iritzi sozialak identifikatzeko.

- Baliabideen eskuragarritasuna. Eskuragarritasun hori aztertuko da xedapenaren jarduketaren eremuan (denbora, lekua, dirua eta baliabide ekonomikoak, informazioa, hezkuntza eta prestakuntza, enplegua eta lanbide karrera, etxeko lana, teknologia berriak, osasun laguntzako zerbitzuak, garraioak, aisia...).

- Parte hartzeko baldintzei buruzko informazioa: emakumeek parte hartzeko baldintzak eta gizonen parte hartzeak.

3.3. Xedapenak zenbateraino erantzuten dien desberdintasun horiei (zioen azalpena, xedea, artikulua)

Xedapenaren emaitzen aurreikuspena aurkeztuko da, desberdintasunak ezabatzeari eta emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna garatzen laguntzeari dagokienez.

Etorkizuneko xedapen arauemailearen ezarpenak emakumeen eta gizonen artean detektatutako desberdintasunetan eragin ditzakeen aldaketak identifikatu behar lirateke.

Emaitzen aurreikuspenak honako hiru alderdi hauek izango ditu erreferentzia:

- Xedapena aplikatzeak zuzenean ekarriko dituen emaitzak, modu kuantitatiboan eta sexuka adierazita.

- Genero estereotipoen eta rolen gaineko eragina.

- Aukera berdintasunaren arloan identifikatu diren helburuak garatzeko ekarpena.

3.4. Eraginaren balorazioa:

Genero eraginaren balorazioan kalifikatu egingo dira aurreikusitako emaitzak, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeari eta berdintasunerako politiken helburuak betetzeari dagokienez, honako eskala honen arabera:

- Negatiboa. Ez bada aurreikusten antzemandako desberdintasunak ezabatu edo murriztuko direnik, eta ez bazaio ekarpenik egiten berdintasunerako politikiei.

- Positiboa. Antzemandako desberdintasunak ezabatu edo murriztuko direla eta berdintasunerako politiken helburuetarako ekarpena egingo dela aurreikusten bada.

4. ERAGIN POSITIBOA BERMA DADIN XEDAPENAK BILDU BEHAR DITUEN EDUKIAK

Lehenago egindako azterketatik abiatuta, bidezkoa da adieraztea ea izaera orokorreko xedapenak, generoaren arloan indarra duen lege agindua betez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioa errespetatzen duen, genero ikuspegitik bere hizkuntza zaintzen duen, genero estereotipoak ezabatzen laguntzen duen, emakumeak ikusgai egiteko eta emakumeen eta gizonen parte hartzea orekatzeko ekarpenik egiten duen, eta abar.

IV. ERANSKINA

ARAUGINTZAKOTEKNIKARI BURUZKO GIDALERROAK, FORU ARAUEN AURREPROIEKTUAK ETA IZAERA OROKORREKO GAINERAKO XEDAPENEN PROIEKTUAK EGITEKO

LEHENENGOA. EGITURA.

A. ZATIKETA

Foru arauen aurreproiektuek eta foru dekretu arauemailearen, presa fiskaleko dekretu arauemailearen, dekretuaren edo foru aginduaren forma duten izaera orokorreko xedapenen proiektuek zati hauek izango dituzte: xedapenaren izenburua; azalpen zatia, zeina, foru arauen aurreproiektuetan, "zioen azalpena" deituko baita beti; eta xedapen zatia, zeinean bilduko baitira artikulua eta azken zatia.

B. IZENBURUA

a) Izenburuaren izaera.

Izenburua testuaren parte da, eta testua identifikatzeko, interpretatzeko eta aipatzeko erabil daiteke.

b) Xedapen motaren identifikazioa.

Izenburuaren hasieran xedapen mota adieraziko da: foru arauaren aurreproiektua, presa fiskaleko dekretu arauemailearen proiektua, foru dekretuaren proiektua, foru aginduaren proiektua.

c) Izendapena.

Izenburuak arauaren xede materiala adieraziko du, xede hori erabat identifikatuz, zehatz eta osoki, xedapen zatian egin ohi diren deskribapenak saihestuz, baina araututako gaiari antzemateko adinako zehaztasunarekin. Ez da komeni izenburuan siglak eta laburdurak erabiltzea.

Behin foru dekretu arauemaileak, presa fiskaleko dekretu arauemaileak, foru dekretuak eta foru aginduak onartu eta gero, haien izenburu ofiziala sistema tradizionalakoa izango da: kasuan kasuko zenbakia eta urtea —azken hori zenbakiz emanda, bere lau zifrekin—, barra batez bananduta, eta jarraian, koma artean, hilabetea eta eguna.

d) Aldi baterako xedapenak eta xedapen aldatzaileak.

Aldi baterako xedapenen izenburuan haien indarraldia agertuko da; eta xedapen aldatzaileen izenburuan izaera hori azalduko da, eta aldatzen den xedapenaren izenburu osoa aipatuko da.

C. AZALPEN ZATIA

a) Aurkibideak

Xedapen oso konplexu eta marduletan, komeni da aurkibidea eranstea, betiere azalpen zatiaren aurretik.

b) Azalpen zatiaren izena

Foru arauen aurreproiektuetan azalpen zatiari "zioen azalpena" deituko zaio eta horixe idatziko da, letra handiz, testuaren goiko lerroaren erdian. Gainerako xedapen motetan azalpen zatiak ez du izenbururik izango.

c) Azalpen zatiaren edukia

Azalpen zatiaren eginkizuna da arauaren xedea eta helburua azaltzea, edukia laburbilduz, hobeto uler daitezen bai testua eta bai berak araudira dakartzan berrikuntzak ere, eta, halaber, araua emateko zer eskumen eta ahalmen erabili diren adieraztea.

Foru dekretu arauemailetan, eskuordetza zein foru arauen babesean baliatzen den aipatu behar da; presa fiskaleko dekretu arauemailetan, arau fiskalak presaz zergatik ezarri edo egokitu behar diren azaldu behar da, eta zergatik komeni den hala egitea; eta izaera orokorreko beste xedapen guztietan, xedapena egiteko berariazko lege agindua aipatuko da.

Azalpen zati horretan behar adina justifikatu behar da xedapena bat datorrela arautze egoikiaren printzipioekin, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozeduraren (I. eranskina) 3. artikuluan jasota dauden horiekin.

Beti saihestu behar dira aholkuak, adierazpen didaktikoak edo gorespenezkoak eta antzekoak.

d) Zatiketa.

Azalpen zatiak ez du zertan izan luzea, salbu eta xedapen zatiaren edukiaren konplexutasunak edo berritasunak hala eskatzen duenean, batez ere foru arauen aurreproiektuen kasuan.

Zioen azalpena luzea bada, ataletan zatitu ahal izango da, eta atal bakoitzaren hasieran zenbaki erromatarrak erabiliko dira, zifrak testuan zentratuta.

e) Kontsultak eta txostenak.

Azalpen zatian nabarmendu egin beharko dira izapidetzearen alderdi garrantzitsuenak: egindako kontsultak, emandako txostenak, ukitutako erakunde eta sektoreen entzunaldia etab. Informazio hori aparteko paragrafo batean jarriko da, onartze formularen aurretik.

f) Onartze formula.

Diputatuen Kontseiluaren dekretuen eta foru dekretu arauemaileen azalpen zatia eta xedapen zatia josten dituen formula "horrenbestez" hitzarekin hasiko da, eta erreferentzia egin behar die, hurrenkera honetan, araua proposatu duen diputatuari —edo batera proposatu duten diputatuei—, eta Diputatuen Kontseiluak egun berean egindako bilkuran aurretiaz araua eztabaidatu izanari. Paragrafoa koma batez itxiko da, eta azpiko lerroan, erdian, letra handi eta lodiz, XEDATZEN DUT idatziko da.

Presa fiskaleko dekretu arauemaileen kasuan, azalpen zatiaren eta xedapen zatiaren arteko lotura aurreko paragrafoan adierazi bezala egingo da, baina XEDATZEN DUT idatzi aurretik honako hau txertatuko da: "otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, Foru Aldundiari ematen dizkioten eskumenak erabiliz, presako arrazoiengatik;"

Diputatu nagusiaren dekretuetan eta diputatuen foru aginduetan, "hori dela eta", "horregatik", "horrenbestez", "dagozkidan eskumenak erabiliz" edo antzeko esapideren batekin hasiko da loturako esaldia, eta XEDATZEN DUT hitzekin amaituko da, azken horiek zentratuta, letra handi eta lodiz.

Foru arauen proiektuetan ez da onartze formularik jarriko. Izan ere, Diputatuen Kontseiluak erabaki bidez onartzen duena da proiektua igortzea Arabako Batzar Nagusiei, hau da, testua foru arau gisa onartzeko eskumena duen organoari.

D. XEDAPEN ZATIA

a) Edukia eta xedapen orokorrak.

Xedapen zatian bildu behar dira arau juridikoa osatzen duten zehaztapenak. Xedapen zatia antolamendu irizpide bakar honi lotuko zaio:

1. Arau orokorrak arau berezi edo partikularren aurretik doaz.

2. Garrantzitsuenak bigarren mailakoen aurretik doaz, eta, betiere:

a) Abstraktuak zehatzen aurretik.

b) Arruntak salbuespenezkoen aurretik.

c) Substantiboak prozesalen aurretik.

d) Arau iraunkorrak aldi baterakoen aurretik doaz.

e) Arau teknikoak, adibidez indarraldien gainekoak (xedapen iragankorrak, indargabetzaileak eta indarrean jartzeari buruzkoak) azkenean doaz.

b) Barne antolamendua.

Xedapen zatiak kasu bakoitzean egokia den barne antolamendua izango du, eta honako egitura hau hartuko du:

Xedapen orokorrak:

a) xedea eta helburua,

b) printzipioak,

c) definizioak,

d) aplikazio eremua.

Zati substantiboa:

e) arau substantiboak,

f) antolaketa arauak,

g) funtzionamenduari buruzkoak,

h) eskubideak eta betebeharrak esleitzekoak

i) mugak eta debekuak ezartzekoak.

Zehapen zatia:

j) arau hausteak eta zehapenak tipifikatzen dituzten arauak,

Prozedurazko zatia:

k) prozedura arauak,

l) prozesu eta berme arauak,

Azken zatia:

m) xedapen gehigarriak,

n) iragankorrak,

o) indargabetzaileak

p) eta azkenak.

Eranskinak.

c) Zatiketa.

Xedapen zatiko artikulua honako dibisio hauetan bakarrik multzokatu ahal izango dira:

1. Liburuak: salbuespen bakanetan, arau oso-oso luzea denean.

Zenbaki ordinal bana izango dute, letraz adierazia, eta dagokien titulazioa; eta hurrengo lerroan izenburua, zentratuta, letra xehe eta lodiz, punturik gabe.

2. Tituluak: xedapen arauemaile luzeetarako, alegia, ehun artikulua baino gehiago dituzten xedapenetarako, baldin eta argi berezitate zatiak badituzte.

Zenbaki erromatar bana izango dute (xedapen orokorretan, normalean atariko titulua ere egongo da), zentratuta, letra handiz eta punturik gabe, eta hurrengo lerroan izenburua, bera era zentratuta, letra xehe eta lodiz eta punturik gabe.

3. Kapituluak: testu arauemaileak oso laburrak eta xede berezikoak izan ezean, artikulua, arrazoi sistematikoen, kapituluaren multzokatu dira, eta kapituluok eduki homogenea izango dute.

Zenbaki erromatarrekin zenbaituko dira, eta haien goiburua, letra handiz idatzia, orrialdean zentratuta kokatuko da, punturik gabe; azpiko lerroan, kapituluaren lehenengo artikulua gainean, kapituluaren izena jarriko da, bera ere zentratuta eta punturik gabe, baina letra xehez (hasierako letra handia eta arau ortografikoen arabera behar diren gainerakoak izan ezik) eta lodiz.

4. Atalak: argi berezitate zatiak dituzten kapitulu luzeetarako. Kapituluak ez badago, ez da erabiliko dibisio mota hori.

Atalak zenbaki ordinalekin zenbaituko dira, zenbakia puntu batez berezitate izenburutik, dena lerro berean, letra handiz eta amaierako punturik gabe. Azpiko lerroan, ataleko lehenengo artikulua gainean, atalaren izena jarriko da, bera ere zentratuta eta punturik gabe, baina letra xehez (hasierako letra handia eta arau ortografikoen arabera behar diren gainerakoak izan ezik) eta lodiz.

Ez da dibisio unitate batetik beste batera pasatuko tarteko dibisioren bat huts eginda, atalen kasuan izan ezik, izan ere kapituluak ataletan eta atalak artikuluetan nahiz kapituluak zuzenean artikuluetan zatitu ahal izango baitira.

d) Artikuluak.

Izaera orokorreko xedapenen testuak honako irizpide hauei jarraituz zatituko dira artikuluetan:

1. Motak.

Xedapenaren artikulua bakoitzak xedapenaren gaiaren alderdi bat arautu behar du, eta "artikulua" terminoa izango du izenaren barruan.

Artikulu bat baino ez badago, "Artikulu bakarra" deituko zaio, eta hainbat artikulua badaude, hurrenez hurreneko zenbaki ordinal arabiarrekin zenbaituko dira, xedapen aldatzaileen artikulua izan ezik, horiek letraz idatzitako zenbaki ordinalekin zenbaituko baitira.

Artikuluaren zenbakia eta "artikulua" hitza testuaren gaineko lerroaren ezkerreko ertzean kokatuko dira.

2. Izena

Arau orokor gisa, artikuluek izenburu bana izango dute, artikulua edukia labur azalduko duena. Artikuluaren zenbakiaren eta "artikulua" hitzaren atzean kokatuko da artikulua izenburua, eta hori guztia letra lodiz idatziko da.

3. Edukia.

Artikuluaren edukia artikuluaren izenburua dagoen lerroan bertan ez, hurrengo lerrotik aurrera jarriko da.

Artikulu bakarra dagoenean, edukia segidan jarriko da, artikuluaren izenburutik bi puntuz bananduta, salbu eta artikuluak paragrafo bat baino gehiago dituenean; horrelakoetan aurreko arauari jarraituko zaio.

Beharrezkoa denean, artikuluaren edukia zatitu egingo da zenbaki ordinal arabiarrekin zenbakitutako idatz zatietan (idatz zati bakarra izanez gero, ez zaio zenbakirik jarriko), baina idatz zatiek ez dute izenbururik izango. Ez da komeni artikulu bateko idatz zatiak lauzpabost baino gehiago izatea.

Idatz zati bakoitzeko paragrafoei ez zaie zenbakirik jarriko, oro har, ez direlako azpidibisiotzat jotzen. Baina idatz zatia zatitu beharra dagoenean, paragrafoetan zatituko da, eta horiek seinatzeko, alfabetoaren arabera a-tik aurrera ordenatutako letra xeheak jarri ahal izango dira (alfabetoaren letra guztiak erabiliz, baita ñ eta w letrak ere, baina ez ch eta ll letra bikoitzak), amaierako parentesiaren ikurrean bilduta.

Idatz zatietako paragrafoak, salbuespenez, zatitu beharra dagoenean, azpidibisioei zenbaki korrelatibo arabiar bana jarriko zaie.

Artikuluaren dibisio eta azpidibisioek, idatz zati eta paragrafoek, ez dute hasieran marratxo, izartxo edo bestelako markarik eduki behar.

4. Enumerazioak.

Artikulu, idatz zati edo paragrafoen dibisioak enumerazioak direnean, arau hauek bete behar dira:

a) Zati bakoitza gramatikalki komunztatu behar da sarrerako esaldiarekin, amaierako tarte-kiarekin, halakorik bada, eta gainerako zatiek; alegia, ez dira mota desberdinak nahastu behar (hasierako infinitiboa, edo aditza nominalizatuz sortutako izena, edo bestelako formulazioak, zeinek betiere homogeneousak izan behar baitute).

b) Epigrafeek ez dute koskarik izan behar, gainerako testuak dituen ertz berak baino, eta sarrerako eta amaierako klausulek ez dute tabulaziorik izango.

c) Arau orokor gisa, zati bakoitza letra handiz hasiko da, eta puntu batez bereiziko da hurrengo zatitik, salbu eta enumerazioa izen sintagmez soilik osatutako zerrenda denean; halakoetan, zati bakoitza letra xehez hasiko da eta koma batez bereiziko da hurrengo zatitik, azken aurreko zatia eta azken zatia izan ezik; azken aurreko zatiaren amaieran "eta" nahiz "edo" jarriko da, eta azken zatiaren amaieran, amaierako klausularik ez badago, hurrengo paragrafora pasatzeko puntua jarriko da.

E. AZKEN ZATIA.

a) Arau orokorrak.

Azken zatian honako xedapen mota hauek egongo dira, hurrenkera honetan: xedapen gehigarriak, xedapen iragankorrak, xedapen indargabetzaileak eta azken xedapenak.

Xedapen mota horietako bakoitzak bere zenbakitze sistema korrelatiboa izango du, letraz adierazitako zenbaki ordinalaz osatua; xedapen bat baino ez badago, bakarra dela jarriko da. Xedapenaren zenbakia eta xedapen motaren adierazpena testuaren gaineko lerroaren ezkerreko ertzean kokatuko dira.

Xedapenei izenburua jarriko zaie eta bertan labur azalduko da xedapen bakoitzaren edukia edo gaia.

b) Xedapen gehigarriak.

Xedapen gehigarrietan honako hauek bilduko dira, hurrenkera honetan:

1. Araubide juridiko bereziak, artikuluetan jaso ezin direnak: lurraldekoak, pertsonalak, ekonomikoak eta prozesalak.

Artikuluetan izaera orokorrez arautzen diren araubideetako egoera juridiko berak xedetzat ez dituzten araubide bereziak bakarrik jasoko dira hemen, baldin eta, gainera, ez badute xedapen zatiko artikulua edo kapitulu baten edukia eratzeko adinako garrantzirik.

2. Arau juridikoak egiteko xederik ez duten mandatu eta jarduketak. Halakoak ezartzen direnean, mandatua betetzeko epea ezarri behar da.

3. Hondar manuak, arauaren beste inongo ataletan kokatu ezin direnak. Azken baliabide gisa joko da manu bat hondar manutzat kalifikatzera.

c) Xedapen iragankorrak.

Xedapen iragankorretan honako manu hauek jasoko dira soil-soilik, hurrenkera honetan:

1. Arauketa material autonomoa ezartzen dutenak, xedapen berriak eta lehengo xedapenak ezarritakoaz bestelakoa, xedapen berria indarrean jarri aurretik hasitako egoera juridikoei buruz,

2. lehengo xedapenaren iraupena edo aurreraeragina deklaratzan dutenak, xedapen berria indarrean jarri aurretik hasitako egoera juridikoak arautzeko,

3. xedapen berriaren atzeraeraginezko aplikazioa deklaratzan dutenak, xedapen berria indarrean jarri aurretik hasitako egoera juridikoak arautzeko (gogora ekarri behar da Konstituzioak debekatu egiten duela norbanakoen eskubideak murrizten dituzten edo kalte egiten dieten xedapen zehatzaileen atzeraeragina),

4. xedapen berriaren behin betiko aplikazioa ahalbidetzearren arau zaharraren iraupena edo aurreraeragina deklaratzan dutenak, arau berria indarrean jarri eta gero sortuko diren egoera juridikoak arautzeko,

5. xedapen berriaren behin betiko aplikazioa ahalbidetzearren, modu autonomoan eta behin-behinean arautzen dituztenak xedapen berria indarrean jarri eta gero gertatuko diren egoera juridikoak.

d) Xedapen indargabetzaileak.

Indargabetutako xedapen edo enunziatu arauemaile guzti-guztien zerrendak dira. Babes klausula batek ematen dio amaiera zerrendari; indargabetutako gaia mugatzen du, honela: "... eta ... honen aurkakoak diren ... arloko beste xedapen guztiak". Baina inoiz ez da klausula orokor hori soilik ezarriko.

Foru arauen proiektuetan, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, eranskin batean jarri behar da indargabetutako edo aldatutako xedapenen zerrenda.

e) Azken xedapenak.

Honako hauek bilduko dituzte, hurrenkera honetan:

1. Zuzenbide indarduna aldatzeko klausulak, xedapenaren helburu nagusia beste xedapen bat aldatzea ez denean,

2. zenbait xedapenen maila babesteko klausulak, eta, halaber, xedapen arauemaileak edo besteren eskumenak babesteko klausulak,

3. ordezkotasun arauak: beste xedapen batzuk kasuan kasuko xedapenaren ordezkoak izan daitezkeela diotenak, edota kasuan kasuko xedapena beste xedapen batzuen ordezkoa izan daitekeela diotenak,

4. arau juridikoak sortzeko baimenak eta mandatuak, esaterako, erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntzak edo beste araugintza proiektu batzuk aurkezteko mandatuak,

5. xedapenaren indarraldiari buruzko arauak (indarrean jartzea eta indarraldiaren amaiera).

Diputatuen Kontseiluaren foru dekretuen eta foru arauen proiektuetan (haien forma edozein izanda ere, 52/1992 Foru Arauaren 1997. artikulua arabera) ez ezik, diputatu nagusiaren foru dekretuetan eta foru aginduetan ere, izaera orokorreko arauak badakartzate, indarraldia aipatu behar da. Diputatu nagusiaren dekretuak eta foru aginduak administrazio egintzak direnean, aldiz, "ondorioak sortzeaz" hitz egingo da beti.

Xedapena noiz jarriko den indarrean adierazteko, lehentasunez, urtea, hilabetea eta eguna aipatuko dira. Baldin eta, presako arrazoiengatik, xedapen arauemaile bat berehala jarri behar bada indarrean, gomendatzen da, herritarren segurtasun juridikoa zaintzearen, ez erabiltzea "ALHAOn argitaratzen den egunean bertan" esapidea, "ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean" esapidea baino.

Xedapen bat modu mailakatuan jarri behar bada indarrean, edo zati nahiz manu jakin batzuen indarrean jartzea atzeratu nahi bada, honela adierazi behar da: "foru agindu, arau, dekretu... hau ... jarriko da indarrean, ... tituluak (kapituluak/artikuluak) izan ezik, horiek ... jarriko baitira indarrean".

Ez da inoiz erabili behar zalantzazko legezketasun material eta formala duen formularik, adibidez, "kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean egongo da arau hau..."; horrelako baldintzek kolokan jartzen dutelako arauaren baliozkotasuna bera.

F. ERANSKINAK.

a) Kokapena eta konposizioa.

Eranskina azkenean kokatuko da; eranskin bat baino gehiago badaude, zenbaki erromatarrez zenbakituko dira, eta izenburua jarriko zaie, edukiaren aipamenarekin. Konposizioa xedapen zatiko tituluetarako adierazitakoa bera izango da.

Xedapen zatian beti egongo da aipamen argiren bat eranskinari buruz edo eranskinetako bakoitzari buruz.

b) Edukia.

Eranskinetan honako hauek jaso daitezke:

1. kontzeptuak, erregelak, betekizun teknikoak, grafikoak, planoak, eta idatziz osorik adierazi ezin diren beste elementu batzuk;

2. testuko xedapenak aplikatu behar zaizkien pertsona, ondasun, leku eta abarrekoen zerrenda;

3. testuak arau balioa ematen dien akordio edo hitzarmenak, eta

beren izaeragatik edo edukiagatik eranskinean jaso behar diren beste dokumentu batzuk.

c) Onarpen arauak.

Ez dira eranskintzat joko, nahiz eta arauan eranskinen leku berean kokatu, foru dekretu arauemaileen bidez onartzen diren testu artikulatu edo bateginak, argitaratze ofizialerako erantsen direnak; ez eta xedapen orokorraren testuari erantsita argitaratzen diren erregelamendu, estatutu edo bestelako arauak ere, horiek guztiak onarpen erabakiaren xede direlako.

d) Eranskinak aldatzea.

Beharrezkotzat jotzen bada eta eranskinaren izaerak aukera ematen badu, erregelamenduzko garapenerako gaikuntza klausulek baimena eman ahal izango dute eranskinen edukia aldatzeko.

BIGARRENA. IGORPENAK ETA AIPAMENAK.**a) Igorpenak.**

Xedapen baten testua sinplifikatzearen, igorpenak egin daitezke, beste xedapen batera edo batzuetara jotzeko aginduz. Beste xedapen horien edukia haren ataltzat jo beharko da, eta ez da osorik errepikatu beharrik izango, baldin eta arauaren argitasunaren eta ulergarritasunaren kalterako ez bada.

Igorpena egiteko honelako esapideak erabili behar dira: "halakoren arabera" edo "halakorekin bat etorri". Zein arauri eta manuri buruz ari den zehaztu behar da, eta artikulua edo idatz zatiaren zenbakia emateaz gainera, azalpen kontzeptual labur bat erantsi behar da, errazago uler dadin.

Betiere igorpenak zuhurtasunez eta neurritz erabili behar dira, eta ez da igorpen gehiegi egin behar.

b) Aipamenak.

Zenbaituta dauden modua errespetatuz aipatu behar dira manuak, eta handienetik txikienarako ordenan: artikulua zenbakia, idatz zatiarena, eta, halakorik bada, paragrafoarena. (Adibidea: "... Foru Arauaren 3.1.1 artikuluko hirugarren paragrafoaren arabera...")

Aipamen motari erreparatuta honako arau hauek bete behar dira:

1. Xedapen bereko manuren baten aipamena denean, ez dago inguruabar hori adierazi beharrik ("arau honen" edo "dekretu honen" jarritz), bai ordea beste xedapen batzuen aipamenak ere batera egiten direnean.

2. Beste xedapen arauemaile batzuk lehenengo aldiz aipatzen direnean, bai azalpen zatian bai xedapen zatian, xedapenaren izenburu osoa jarri behar da: data, zenbakia eta urtea, mota eta izena. Hurrengo aldietan aipamen laburtua egingo da (data, zenbakia eta urtea, eta mota).

3. Honela aipatuko dira aldizkari ofizialak: data (urtea, hilabetea eta eguna), aldizkari ofizialaren izenaren siglak, eta zenbakia. Adibidez: "Xedapen hori 2017ko urtarrilaren 2ko ALHAOn argitaratu zen, 1. zenbakian..."

4. Ebazpen judizialak honela aipatu behar dira:

"... Auzitegiaren (epaiaren zenbakia eta, barra etzan batez bereizita, urtea, lau zifrekin) Epai, data (hilabetea eta eguna) eta gaia"

Zenbaituta ez dauden epai, probidentzia eta autoak identifikatzeko, haien identifikazio elementu guztiak aipatuko dira: mota, organoa, data osoa eta gaia.

Bai ebazpenaren data bai gaiaren izena koma artean idatzi beharko dira.

HIRUGARRENA. XEDAPEN ALDATZAILEEN BEREZITASUNAK.**a) Zeintzuk kasutan diren bidezkoak.**

Aldaketaren teknika erabiltzen da soil-soilik idazketa berria emateko aurreko xedapen baten zatiren bati, xedapen berriak eransteke, lehendik badiren xedapenei zatiren bat kentzeko edo beste xedapen batzuen indarraldia luzatzeko edo eteteko.

Aldaketa horien bitartez testu zaharrari idazketa berria ematen zaio halako moduz non xedapen aldatzailearen edukia osorik integratzen baita aldatutako xedapenean.

Foru arauen proiektuen helburu nagusia beste arau batzuk aldatzea ez izan arren, egitez aldatetako egiten direnean, eranskin batean jasoko da aldatutako xedapenen zerrenda.

Aldaketa luzeak edo ugariak egin behar izanez gero, horren orde zedapen berria egingo da.

b) Izenburua

Xedapen aldatzailearen izenburuak inguruabar hori adierazi behar du eta aldatutako xedapenaren izenburua jaso behar du, bere data osoarekin, baina ALHAOn noiz argitaratu zen aipatu gabe.

Halaber, indarraldiak luzatzeko edo eteteko arauen izenburuek arau horien izaera espezifikoa adierazi beharko dute.

Izenburuan alferrikako errepikapenak saihestuko dira; esaterako, ez da esango "... duen Dekretua aldatzen duen Dekretua..."; baizik "Dekretua; honen bidez aldatu egiten da ... duen Dekretua".

c) Artikuluak

Xedapen aldatzaileen artikuluak letraz idatzitako zenbaki ordinalez zenbakitu behar dira, eta haietan zehatz eta argi adierazi behar dira aldatutako zatiaren datuak (letrak, paragrafoak, idatz zatiak, kapituluak eta abar) eta egindako aldaketa mota (idazketa berria edo gehikuntza). Aldaketaren testua koskarekin eta komatxo artean idatzi behar da.

Idazketa berria denean, aldatu beharreko idatz zatiaren edo artikuluaren testu osoa transkribatu behar da. Gehikuntza denean, gehitu beharreko testua transkribatu behar da, eta non txertatu behar den zehaztu.

Aurrekoaren ondorioetarako, aldatutako xedapenaren ordenari jarraitu behar zaio.

Artikulu osoak gehitzen edo kentzen direnean xedapenaren artikuluetan aldaketarik ez egiteko, bis, ter, quater eta abarreko artikuluak erants daitezke, edo edukirik gabeko artikuluen deklarazioa egin daiteke.

Berrikuntzaren bat dakarten xedapen guztiak aparteko artikulua batean formulatu behar dira, ez lehendik baden artikulua baten idatz zati batean.

Xedapen aldatzaileen artikuluei zenbaki ordinalak jarri behar zaizkie (adibidez, Lehenengo artikulua) xedapen aldatzailea xedapen aldatuan errazago txertatzeko.

Artikulu aldatzailearen izenburuan aldatu beharreko artikuluaren zenbakia eta izenburua, halakorik edukiz gero, aipatuko dira, bai eta aldatutako xedapenarenak ere.

Aldaketa asko egiten dituzten xedapenak kapituluetan zatitu behar dira eta kapitulu bat erabili behar da foru arau, dekretu edo foru agindu bakoitza aldatzeko.

d) Estiloa

Arau orokor gisa, xedapen aldatzaileetan arautze estiloa erabiltzen da (idazketa berria ematea aldatutako xedapenei), salbu eta hitz solteak aldatzen direnean, esapide berak behin eta berriz aldatzen direnean, kopuruak aldatzen direnean eta antzeko beste kasu batzuetan; horrelakoetan aldatze estiloa erabili behar da (hitz batzuk aldatzea, idazketa berririk eman gabe).

Arautze estiloan, esparru testua (zeintzuk xedapen aldatzen diren eta aldaketa nola egiten den adierazten duena) eta arautze testua (aldaketa gauzatzen duen testu berria) erabat bereizita egon behar dira.

Aldatze estiloa erabiltzen bada, nabarmendu egin behar dira aldatzen diren esapideak, bai eta esapide berriak ere. Adibidez, batzuk eta besteak komatxo artean jar daitezke.

e) Artikuluak gehitzea

Artikulu berriak gehitu beharra dagoenean jatorrizko artikuluen zenbakiei eutsiko zaie beti, beste xedapen batzuetatik haietara jotzeko balizko igorpenen jokoak ez aldatzeko.

Gehitutako artikuluei aurrean duten artikuluaren zenbakia emango zaie, latinezko adberbio zenbatzaile bat erantsita, kasuan kasukoa, hurrenkeraren arabera (bis, ter, quater eta abar). Arau hori aplikatzerakoan ez da kontuan hartuko zenbat artikulu dituen aldatutako xedapenak eta artikulu berriak non kokatzen diren xedapen horretan. Beraz, artikulu bakarria duten xedapenei artikulu gehiago gehitzen zaien kasuetan ere arau hori aplikatuko da.

f) Aldaketaren ordena.

Xedapen aldatzaileak aldatutako xedapenaren ordenari jarraituko dio, zeina aldaketa motaren (idazketa berria, gehikuntza eta abar) irizpidearekin konbinatu ahal izango baita.

Aldaketa asko egiten dituzten xedapen aldatzaileek ukitutako xedapenen onarpen ordenari jarraituko diote.

LAUGARRENA. HIZKUNTZA IRIZPIDE OROKORRAK.

Xedapenak hizkuntza jasoan idatzi behar dira, baina herritarrek ondo ulertzeko moduan, argi, zehatz eta erraz.

Ohiko lexikoaren errepertorioa erabiliko da, inoiz ere ez arrunta, eta, bidezkoa denean, esanahi propioa duten termino teknikoak erabiliko dira.

Ez da erdarakadarik erabiliko euskarazko baliokide egokia dagoenean. Ez da erabiliko ohiz kanpoko hitzik edo hizkuntza eraikuntzarik.

BOSGARRENA. Hizkera ez sexista erabiltzea.

1. Izaera orokorreko xedapenak idaztean erabiliko den hizkerak bereizkeriazko formen erabilera saihestuko du; hala, erabiltzen den terminologia bat etorriko da sexuen arteko berdintasunaren printzipioarekin.

2. Gaztelaniaz ez da erabiliko maskulino generikorik, eta ordezeko aukera hauek hartuko dira kontuan:

a) Substantibo generiko edo kolektiboak erabiltzea bi sexuak batera aipatzeko.

b) Perifrasiak erabiltzea.

c) Subjektuaren sexua zuzenean aipatzen ez duten eraikuntza gramatikalak erabiltzea, baldin eta inolako anbiguotasunik sortzen ez bada. Honela:

d) Bi sexueterako determinazio bakarreko substantiboak direnean eta artikulua generoa zehazteko funtzioa hartzen duenean, hainbat aukera daude:

e) Eraikuntza metonimikoak erabiltzea, karguaren, lanbidearen, ogibidearen edo titulazioaren aipamena eginez, horiek dauzkaten edo betetzen dituzten pertsonak izendatu beharrean.

f) Maskulino generikoa erabiltzen denean, halaber, aposizio ez murrizgarriak erabili ahalko dira, argi uzteko funtzio generikoa duelako erabili dela.

g) Baldin eta, arrazoi juridikoengatik, legegintzako teknikagatik edo estiloagatik, aurreko baliabide lexiko-semantiko eta morfosintaktiko horietako bat ere ezin bada erabili, maskulino generikoa erabiliko da.

3. Ahal den neurrian saihestuko da bikoiztasunaren estrategia, bai eta komuntadura bikoitzak ere, generoari dagokionez, artikuluetan, substantiboetan eta adjektiboetan. Hala ere, ezinbestekoa bada bikoiztasunak erabiltzea, berdina izango da zein hurrenkeratan erabiltzen diren.

4. Testu arauemaileak idaztean inoiz ez da barrarik erabiliko.

5. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeetako karguen aipamenetan honako irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Izaera orokorreko xedapenen proposamenei buruzko aipamenetan eta horien sinaduretan kargua aipatuko da dagokion generoan, femeninoan edo maskulinoan, une bakoitzean karguan dagoen pertsonaren arabera.

b) Kide anitzeko organoetako kideen izendapenetan eraikuntza metonimikoak erabiliko dira, ahal bada, eta, horrekin batera, ez da artikulurik jarriko karguaren edo ordezkariaren ondoan, sexurik ez izendatzeko.